


Bernardo Atxagak

“Sara izeneko gizona” berritu du

Euskal Literaturan Inork ez badu aurkezpenik behar, hori Bernardo Atxaga da; zalantzarik gabe, gure idazlerik ezagunena delako. Duela gutxi Euskadi saria jaso zuen bere "Nevadako egunak" lanarengatik. Eta egun gutxi batzuk beranduago, Durangoko Azokan bere "Sara izeneko gizona" berritua aurkeztu zuen. Gure ikasleentzat ezinbestekotzat jotzen dugun lan honi buruz mintzatu gara elkarrizketan.





■ **Entzun izan dizugu liburu honen idazketa berezia izan zela. Zer adierazi nahi zenuen, zehazki?**

Liburu honek ez zuen, hasiera batean, liburu izan nahi. Lehen bertsoia idatzi, irakurri, eta baztertu egin nuen. Ez zitzaidan aurrez gazteentzat ateratako *Bebi euskaldun baten memoriaken* mailakoa iruditu. Hurrengo udan, ordea, egunkari erdaldun batek abuztua "betetzeko" testu luze xamar bat eskatu zidan. Jakina da, kazetari askok oporrak hartzen dituzte abuztuan, eta egunkarietako zuzendariek orrialdeak ezin betez ibiltzen dira. Gainera, udan ez dago futbolik, eta horrek hutsunea izugarri handitzen du.

■ **Normalean ipuinak eskatzen dizkiete idazleei, ezta?**

Bai, baina kasu honetan hilabete bateko zuloa betetzeko testua eskatu zidaten, orrialde oso bat egunero. Nik onartu egin nuen, zeren garai hartan nik ere zuloak bainezkan, poltsikoan batez ere. Hala, XIX. mendeko idazleen

egoera batean egokitu nintzen, folletoi bat idazteko premian. Gure kolegioko fraideek esaten zuten bezala, *mente apretata discurre que se mata*, eta nik ere, larri bainengoen enkargu harekin, *diskurrirtu* egin nuen. Baztertutako testua etorri zitzaidan burura, eta hura itzultzen eta egokitzen hasi nintzen. Oker ez banago, aldi bakoitzean aste oso baterako puska bidaltzen nuen egunkarira. Bolada hartan, asko hitz egiten nuen herriko auzo batekin, eta berak esaten zidan: "Egunkarian ateratzen duan guzti hori, etxeko lau paretan artean asmatzen al duk?".

■ **Eta gero? Esan duzu "Sara izeneko gizonak" ez zuela liburu izan nahi. Zehaztapena eskatu behar dizugu berriro ere.**

Bukatu zen abuztu hura, bukatu nuen testua, eta bazterrean gelditu zen berriro. Alde batera, bi bertsoia neuzkan, bata euskarazkoa eta bestea gaztelaniazkoa, ez erabat berdinak. Bestera, arrazoi sakonena, ez zitzaidan errelatoa gustatzen. Zerbait gehiago behar zuen. Zorionez, gau batean, ez gau batean

baizik gau hasieran –ideia gehienak gau hasieran etortzen zaizkit niri, erdi lotan nagoela. Uste dut hori dela musen ordua, hamaikak, hamabiak, ordu bata...–, ba inbentu txiki bat bururatu zitzaidan. Liburuan dagoen ideia literariorik onena, nik uste. Epilogoak egitea atalei. Inbentu horrek bultzatuta, hirugarren aldiz idatzi nuen errelatoa. Eta oraingoan, bai. Liburu batean argitaratzeko moduan zegoela erabaki nuen. Epilogoek esker, berriro esanda.

■ **Zer motatako epilogoak dira?**

Adibide bat jarriko dizut. Lehen atalean, Martin Saldias Nafarroan baneratzten da bere espia lana egitera. Bidean, armada liberaleko patruila batek altoa ematen dio, eta oso egoera larrian suertatzen da. Azkenean, lortzen du pasatzea. Atala bukatutakoan, ordea, delako epilogo horietako bat dator: "Valdivielso tenienteak pentsatu zuena" Epilogoak ustekabe bat ematen dio irakurleari. Gauzak ez dira gertatu berari irakurketan iruditu bezala. Eta horrela beti, atal guztietan. Ustekabe eta bihurtune ugari dago liburuan.



BERNARDO ATXAGA



**SARA IZENeko
GIZONA**

PAMIOLA

Edizio
berritu

■ Errelatoa Mendean kokatu duzu, lehen gerra karlistaren egunetan. Zergatik?

Ekonomian lizentziatu eta handik hamar bat egunero soldadu joan behar izan nuen. Behartuta, noski. Garai hartan, 1973, aukerak oso zehaztuta zeuden: edo 15 hilabete kuartel batean, edo zortzi urte kartzelan. Aritmerika pixka bat banekien, eta koartelera joanda 81 hilabete irabazten nituela konturatu nintzen segituan. Eta joan egin nintzen. Garai hartan, joaten ez ziren bakarrak, intsumituak, Jehovaharen tes-

tiguak ziren. Ba, nire bizitzako aldirik makurrena izan zen, zatarrena, deprimentea. Alde on bakarra, militarrek aztertzeke aukera paregabea izan nuela. Kuartela barnetegi aparta zen horretarako. Gainera, bi gertaera larri bizi izan nituen han nengoen bitartean: *Marcha Verde* delakoaren aurkako mobilizazio militarra, eta Carrero Blancoren hilketaren ingurukoa. *Marcha Verde*ko hartan "aukeratuetakoa bat" izan nintzen. Saharara joango ginela esan ziguten, agian armada marrokoarraren aurka borrokatu beharko genuela tiroka. Bueno, nik tiroka ez, *radio* bainintzen. Azkenean, bertan behera utzi zuten asmo hura. Suertea izan nuen.

■ Baina liburua lehen gerra karlistan kokatua dago...

Pertsonaiak militarrek direla, hori da inportanteena. Izan ere, pentsaera militarra, militarren soslaia, gerraren inguruko ideologia, oso gutxi aldatu da mendeetan zehar. Alde horretatik, liburuak entretenimendu izan behar du, baina ez entretenimendu huts. Militarismoaren aurkako sentsibilitate bat hedatzen ere lagundu behar du.



■ Azken hitz bat edizio "berritu" honi buruz. Zer esango zenieke gaurko irakurleei?

Batez ere edizio berritua dela. Oso berritua, gainera. Urteak ez dira alferrik joaten, eta Asun Garikanok eta biok testua arintzeko beharra ikusi genuen. Arintzea, normalean, argitzea da. Testua argiago egitea, hori zen helburua. Bestalde, liburua bera, objektu bezala, ederra da. Pamielako Txema Aranazek artista lana egin du testuarekin eta irudiekin.